









# zabal eta bizi

Etxauzia zabal eta bizi amesten dugu. Baigorri bizi eta zabal batean. Euskal Herriko eta mundu osoko lagunekin batean, zabaldu eta biziarazi nahi dugu Etxauzia, eta, haiekin, herri bizi eta zabal bat eraiki. Horretarako, ekonomia, kultura eta historia ardatz dituen proiektua garatzen ari gira, partehartzean, elkarlanean, eta ekimen kolektiboan oinarritua. Proiektua gauzatu ahal izaiteko, bi gauza behar ditugu: Etxauzia gaztelua erostea, eta zure ekarpena.

Nous rêvons du château d'Etxauzia ouvert et vivant, dans une commune de Baigorri vivante et ouverte. Avec nos amis du Pays Basque et du monde entier, nous ouvrirons et ferons vivre Etxauzia ; et c'est également avec eux que nous construirons un pays vivant et ouvert. C'est pour cela que nous développons un projet ayant pour axes l'économie, la culture et l'histoire, basé sur la participation et les initiatives collectives. Pour mettre en marche notre projet, nous avons besoin de deux choses : acheter le château d'Etxauzia et votre contribution.

**Etxauzia gaztelua erosteko zure ekarpena behar dugu**

**Pour acheter le château Etxauzia nous avons besoin de votre contribution**

**EKARPENAK NOLA EGIN**

Kontu korrontean zure ekarpena egiteko aukera duzu.

**COMMENT FAIRE UN DON**

Vous pouvez faire un virement sur notre compte courant.

FR76 1690 6100 2987 0079 2490 771

www.etxauzia.eus

**etxauzia**
zabal eta bizi

## NOR GIRA? Qui sommes-nous?



*Orain, 215 kide gira, ainitz Baigorriarrak, Euskal Herri guzikoak beste hainbat.*

***Nous sommes des personnes qui souhaitons dynamiser la vallée de Baigorri et le Pays Basque intérieur.***

Etxauzia Nafartarren Etxea elkartea Baigorrin sortu ginuen duela bi urte. Baigorri eskualdea eta Ipar Euskal Herri barnekaldea biziarazi nahi dugun jendeek osatzen dugu elkartea. Herritarrak, gazteak, langileak, enpresariak, hautetsiak, kultur eragileak eta, oro har, ingurua biziarazten interesatuak diren pertsonak gira. Etxauzia gaztelua erosteko parada sortu zelarik erabaki ginuen elkartzea eta lanean hastea. Orain, 215 kide gira, ainitz Baigorriarrak, Euskal Herri guzikoak beste hainbat. *"Euskaldun bat Euro bat"* kanpaina egin dugu, eta 2.500 sustengatzaile lortu ditugu. Gurekin dira ere Euskal Herriko izen eta izan ezagun ainitz: sortzaile, elkarte, enpresari, instituzio eta laguntzaile ugari. Egunetik egunera gero eta gehiago gira Etxauziaren komunitate zabal eta bizia osatzen dugunok!

**Etxauzia Nafartarren Etxea elkartea Baigorrin sortu ginuen duela bi urte. Baigorri eskualdea eta Ipar Euskal Herri barnekaldea biziarazi nahi dugun jendeek osatzen dugu elkartea.**

*L'association Etxauzia Nafartarren Etxea a été créée il y a deux ans à Baigorri. Ses membres sont des personnes souhaitant faire vivre la vallée de Baigorri et le Pays Basque intérieur dans son ensemble. Nous sommes des villageois, des jeunes, des salariés, des chefs d'entreprises, des élus, des acteurs culturels, en somme des personnes qui ont pour objectif de dynamiser et de faire vivre leur environnement. Lorsque l'opportunité d'acheter Etxauzia s'est présentée, nous avons décidé de nous rassembler et de commencer à travailler sur le sujet. Aujourd'hui, nous sommes 215 membres, dont beaucoup de Baigorriars et autant de personnes de l'ensemble du Pays Basque. Nous avons mené la campagne "Euskaldun bat Euro bat" qui nous a permis de rassembler 2500 soutiens. De nombreuses personnalités et acteurs du Pays Basque nous ont rejoints : des artistes, des chefs d'entreprises, des institutions et beaucoup d'autres soutiens. De jour en jour, nous sommes de plus en plus nombreux à former la large, dynamique et vivante communauté d'Etxauzia !*

## ZERTARAKO? Dans quel but?

"Zabal eta bizi" diogu, Etxauzia zabaldu eta biziarazi nahi baitugu. "Zabal eta bizi" diogu, gure proiektua zabala eta bizia delako; zabaltasunari lotua, eta biziari ere bai. Etxauzia gaztelua erosteko diru bilketa egiten ari gira, mila urtean herritarrentzat hetsia izan den ondarea herritik zabaldu eta herriarentzat biziarazteko. Herriak boterearen sinboloa berreskuratuz, herriari boterea itzuli, eta, parte hartu nahi duen ororekin, proiektuak elkarlanean gauzatzeko. Horregatik, gure ekonomia babesteko elkartuko gira, gure aitatxi-amatxien garaian bezala, nehork ez dezan berriz Baxenafarrotik joan beharrik izan bere bizia egin ahal izaiteko. Gure izaitea eta kultura ezagutu eta gozatzeko elkartuko gira: Euskal Herriaren ondareaz, girenaz, eta izan nahi dugunaz aritzeko elkartuko gira.

**Etxauzia gaztelua erosteko diru bilketa egiten ari gira, mila urtean herritarrentzat hetsia izan den ondarea berreskuratzeko.**

*Nous disons "ouvert et vivant", car nous voulons ouvrir et faire vivre Etxauzia. Nous disons "ouvert et vivant", parce que notre projet est large et vivant; il est vaste et en lien étroit avec la vie. Nous récoltons des fonds pour acheter Etxauzia: pour rendre au peuple ce qui, durant mille ans, lui est resté fermé; mais aussi pour mettre collectivement en marche les projets. Nous nous rassemblerons pour soutenir notre économie, pour que plus personne n'ait à quitter la Basse Navarre pour pouvoir faire sa vie; pour connaître et apprécier notre identité et notre culture: pour échanger sur le passé, le présent et l'avenir du Pays Basque.*

***Nous récoltons des fonds pour acheter le château Etxauzia et recouvrer ce patrimoine, dont les habitants ont été privés depuis mille ans.***



## ZER EGITEN ARI GIRA? Que faisons-nous?

Lanean ari gira: proiektua eraikitzen, zabaltzen eta biziarazten. Etxauzia elkartean lau batzorde ari dira lanean: diaspora batzordea, ekonomia lantaldea, ondarea lantaldea eta kultur ekimenak antolatzen dituzten kideak. Gure estrategia elkarlan, partehartze eta saretzean oinarritua da; sinesten dugu elkartasunetik, berrikuntzatik eta ekimen kolektibotik bizia emaiten ahal dakogula Euskal Herri barnekaldeari. Euskal Herri osoan baita diasporan ere aurkezten ari gira Etxauziaren proiektua ***bizilagunak*** egiten, proiektua esplikatzen eta ekarpenak han-hemen eskuratzen. Herritarren artean; lantegien artean; eragile, elkarte eta mota guzietako sareetan. Euskal Herriko eta diasporako erakunde nahiz elkarteekin hitzarmenak izenpetzen ari gira.

***Etxauzia elkartean lau batzorde ari dira lanean: diaspora batzordea, ekonomia lantaldea, ondarea lantaldea eta kultur ekimenak antolatzen dituzten kideak.***







***L'association Etxauzia est composée de quatre groupes de travail : celui de la diaspora, celui de l'économie, celui du patrimoine et celui qui organise les événements culturels.***

*Nous élaborons le projet, nous l'exposons et lui donnons vie.L'association est constituée de quatre commissions de travail : celle de la diaspora, celle de l'économie, celle du patrimoine et celle qui organise les événements culturels.. Notre stratégie repose sur le travail collectif, la participation et la mise en réseau. Nous sommes persuadés que le Pays Basque intérieur reprendra vie grâce à cette nouvelle initiative collective, innovante et solidaire. Nous présentons le projet d'Etxauzia dans tous les coins du Pays Basque ainsi qu'à la diaspora, tout en nouant des relations et en recevant divers dons de bon nombre d'entreprises et d'acteurs de milieux différents. Nous signons en ce moment des conventions avec les associations et institutions du Pays Basque et de la diaspora.*





## ETORKIZUNERA BEGIRAKO PROIEKTUA Le projet à venir

Etxauzia erosi eta herriari itzulita, proiektua gauzatzen hasiko gira, eta, gure heinean, Baigorri eskualdea eta Ipar Euskal Herri barnekaldea biziagoa eta erakargarriagoa egiten. Euskal Herri barnekaldeko lantegien elkartea, jadanik sortzen ari girena, hor kokatuko da. Enpresen arteko elkartasuna eraiki, tokiko garapena bultzatu, interes kolektiboen defentsan aritu, euskararen erabilera lantegietan sustatu eta Euskal Herri osoko egitura ekonomikoekin saretuko da lantegi elkartea. Kultur zentroa ere izanen da Etxauzia, Euskal Herrian ditugun beste kulturgune eta ekimenekin saretuko dena eta sormen nahiz emanaldi mailan erreferentea izanen dena. Etxauzia mundu osoko euskaldunendako bizilekua ere izanen da: diaspora zabala ere gure biziaren parte baita. Euskal Herriko zortzigarren lurraldearen hiriburu izanen da Baigorri, eta, Etxauzia, bere bizitoki, bere Ama Euskal Etxea. Hala, ondare inmaterialaren biltze eta ikertze gunea eta gure herriaren ondarean interpretazio zentroa ere aterbetuko ditu.

***Euskal Herri barnekaldeko lantegien elkartea, Kultur Zentroa, Genealogia zentroa eta ondarearen interpretazio zentroa aterbetuko ditu.***

***Elle accueillera l'association des entreprises de Basse-Navarre, un centre culturel, un centre de généalogie et un centre d'interprétation du patrimoine.***









*Dès l'achat du château et sa restitution au peuple, nous concrétiserons le projet en redonnant, à notre niveau, vie et attraction à la vallée de Baigorri, au Pays Basque intérieur. Le projet de réseau d'entreprises que nous avons élaboré deviendra réalité. Nous redynamiserons la solidarité entre les entreprises, nous impulserons le développement local, défendrons les intérêts collectifs et nous favoriserons l'usage de l'euskara dans le mileu du travail. L'association des entreprises sera aussi un réseau de structures économiques du Pays Basque. Etxauzia sera également un centre culturel, qui collaborera avec les centres culturels et autres structures déjà existantes, et qui sera une référence pour la création et les iniatives. Etxauzia sera un lieu de retrouvailles pour tous les Basques du monde entier, car la diaspora étendue fait aussi partie de notre vie. Baigorri deviendra ainsi la capitale de la huitième province et Etxauzia son lieu d'hébergement, la maison-mère des Basques de par le monde. Il prendra en son sein un centre de recherche et de collecte du patrimoine immatériel ainsi qu'un centre d'interprétation du patrimoine de notre pays.*